

Tokiko Agenda 21 Batzordearen 2017ko martxoaren 9ko bileraren ondorio nagusien sintesia

- **URArekin egindako Elkarlan Hitzarmena:** *Lankidetz*a Protokoloaren jarraipen gisa, URAREN arduradunek 2016an egindako jardueren balantzea aurkeztu dute: Ibaizabaleko Unitate Hidrologikoko ibai eta erreken ubideak eta bazterrak mantendu, kontserbatu, berreskuratu, leheneratu eta ingurumen aldetik hobetzeko lanak, hain zuzen ere.
- **2016 Txostena:** Paperean eta koadernatuta ematen da eskura.
- **Hondakinen tratamendurako kuotaren kitapena: tamaina txiki, organikoa eta handiak:** 2016 Txostena onartu ondoren, ontzat ematen da kostuaren kitapena hondakinen hiru frakzio hauetan: tamaina txiki, organikoa eta handiak. Udal bakoitzari kitapen proposamena bidaliko zaio, sartzeko edo jasotzeko. Udaltaldeak, bere aldetik, martxoan ordainduko du.
- **2017 Jardueraren esparru-kronograma: Egutegia eta mugarri nagusiak:** Eskualdeko Bulegoaren lanaren bide-orri hau ontzat eman da
- **Zati organikoaren 3. kanpaina:** 2016ko Laguntzen justifikazioa aurkeztu dela jakinarazi da, eta baita ere, egindako jarduera nagusiak, helburuen balantzea, Herritarren Informazio Plana eta inskribatutako etxebizitzetako emaitza pilatuak.
- **Etxeko hondakinak biltzeko lehiaketa:** Berritasunak jakinarazten dira. Erabilitako etxeko landare olioak biltzeko zerbitzuaren kontratazio txosten berria abiatzea adostu da.
- **Eskualdeko Energia Behatokia:** Eskualdeko Energia Behatokiaren berri eman da. "Energiaren 2016ko Eskualde Txostena" aurkeztu da. Urduña bertan sartu dela jakinarazi da. Herritarren atariaren eta eskaini beharreko datu eta adierazleei buruzko planteamenduaren berri eman da. Martxoaren 30eko aurkezpen publikoaren planteamendua aurkeztu da, eta oniritzia eman zaio.
- **Basauriko soberakinaren kitapena:** Basauriko soberakinaren kitapenari buruzko ebazpena onartu da: 1. 2009tik dagoen soberakina osorik kitatzea. 2. Basauriko Udalaritza itzultzea gainerako zenbatekoa: 15.799,92 euro. 3. Berehala ordaintzea.
- **Informazioak:** Eskualdeko Sare Berdearen proposamena; Aiarako Eskualde Hitzarmena Eranskinak; BFA hondakinen Inguruko Hitzarmenak; Ugaoko Ibai-paisaiaren Ekintza Plana; Jasotako eskaintzak.
- **Bestelakoak:** Hondakinei buruzko udal ordenantza; Hurrengo bilerak: S.L.ren Batzar Nagusia, martxoaren 23, 9etatik 10:30ak arte; Energiaren Eskualdeko Behatokiaren aurkezpena, martxoaren 30, 11etatik 12ak arte; Batzordea, apirilaren 6, 9etatik 11 arte. Ondoren, Hondakinei buruzko udal ordenantzari buruzko lan mahaia, 11etatik 12:30ak arte.